

LANEKO EZBEHARREN TXOSTENA NAFARROAN 2021



Lan-merkatu prekarizatu batean, eta Covid-aren ondoriozko murrizketek markatutakoan, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kopuruak gora egin du.

20 HILDAKO LANEAN

ELA-LAB-CGT-ESK-STEILAS-EHNE-HIRU

LANEKO EZBEHAR-TASA NAFARROAN 2021

2020ko martxoan, COVID-19aren pandemiak aldaketak eragin zituen gure bizitzetan eta lan egiteko moduan. 2021ean egoera ez da hobetu eta murrizketak etengabeak izan dira, pertsonentzat funtsezkoak diren alderdi asko mugatuz, baita lan-munduan ere. EREak, ERTEak, mugikortasunaren mugatzea, QR kodeak, edukierak, musukoak. Zalantzarik gabe, murrizketa horiek **oso ondorio kaltegarriak izan dituzte lan-eremuan**, bai enpresentzat, bai plantillentzat.

Osasun-alertarekin batera atzeraldi ekonomikoa handia izan da, enpresen edota lantokien itxierak, langileen kaleratzeak eta jarduera ekonomikoa txikiagoa eraginez. Jarduera ekonomikoaren geldialdi horren ondorioz, 2021ean Nafarroan **langabezia-tasa % 9,9koa** izan zen (Iturria: EPA).

Hala ere, eta 2020az geroztik lan-jarduera txikiagoa izan den arren, lan-ezbeharren kopuruak nabarmen egin du gora 2021ean. Hala, salatu behar dugu **Nafarroako istripu eta gaixotasun profesionalen datuek okerrera egin dutela modu kezkagarrian**, eta atzeraldi ekonomikoak are gehiago prekarizatu dituela lantokiak.

Administrazio publikoek emandako azken datu ofizialen arabera, Nafarroan lan-ezbeharren kopuruak gora egin du 2020. urtearekin alderatuta. **Istripu-tasa % 16,7 igo da**. Gora egin du istripu berrien kopuruak (baja eta baja gabeko istripuak), berriz gaixotzearenak, istripu arin, larri eta hilgarriak, in itinere istripuen kopuruarenak, intzidentzia-tasenak eta laneko gaixotasunengatik parte jakinarazpenen kopuruarenak. Hildakoak eragin dituzten istripuei dagokienez, **datu ofizialek 13 lan-istripu hilgarri jasotzen dituzte Nafarroan**, 5 lanaldian eta 8 in itinere. Ikus daitekeenez, lan-ezbeharren kopuruak gora egin du indize guztietan eta aztertutako kontzeptu guztietan.

Nafarroan, **2021eko egun bakoitzean 30 langilek izan dute lan-istripu bat**. Aurreko urtearekin alderatuta, istripu hilgarriak 2 gehiago izan dira. Hala ere, ELA-LAB-CGT-ESK-STEILAS-EHNE-HIRUK erregistratutako datuak nabarmen urruntzen dira datu ofizialetatik, eta egoera jasanezina islatzen dute, 2021ean lan-ezbeharrek okerrera egin baitute nabarmen 2020ko datuekin alderatuta. Pandemia egoerak jarduera ekonomikoa murriztu duen arren (ERTEak edota telelana bezalako neurriekin besteak beste), gora egin dute bai lan-istripuek bai lanbide-gaixotasunek eragindako istripuek baita lan gaixotasunek eragindako hildako kopuruak ere. *nmeros que incluyen ERTES o medidas como el teletrabajo, a pesar de la mejoría de los últimos meses.*

Laneko gaixotasunei dagokienez, estatistika ofizialetan dagoen azpierreregistroa salatzen jarraitzen dugu, izan ere, Hego Euskal Herrian gutxienez **17 pertsona hil dira amianto-zuntzen esposizioarekin lotutako patologien ondorioz 2021ean** (ASVIAMIE), baina erregistro ofizialek oraindik ez dute jasotzen arazo larri horren errealitatea, eta gaur egun lan-jatorriko gaixotasunei dagokienez dagoen gutxiegitasunean sakontzen dute. Parlamentuan tramitazio ezberdinak egin diren arren, oraindik ez da amiantoaren biktimentzako konpentsazio-funtsa ordaindu, eta kaltetuek oraindik ere beren kasuak epaitegietara bideratu behar dituzte. Halaber, ez dakigu pandemia hasi zenetik lanpostuan koronabirusa hartzeagatik zenbat pertsona hil diren.

Jarraian azalduko ditugun datuen larritasuna kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan laneko arriskuen prebentziora bideratutako **baliabideak barregarriak dira**.

DATU OFIZIALAK (iturria: MITES)

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) oraindik ez ditu 2021eko laneko ezbeharrei buruzko datuak argitaratu, eta, beraz, beste iturri batzuetan bilatu behar dugu, kasu honetan Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren orrian (MITES). Laneko ezbeharrei buruzko datuak eta txostenak ezinbestekoak dira ezbeharrei buruzko irakurketa xehatua egiteko eta ondorioak ateratzeko. Hemendik NOPLOIri datu horiek berriro argitaratzeko eskatzen diogu. importante como es la siniestralidad laboral y desde aquí solicitamos al ISPLN que vuelva a publicarlos.

MITESen argitaratutako datu ofizialak kontuan hartuta, soilik baja eragin duten lan-istripuei erreferentzia egiten dietenak, 2021ean 10.982 izan ziren, 9.925 lanaldian eta 1.057 in itinere. Istripu arinek 10.892 kasu biltzen dituzte, kopuru osoaren % 99,1, larriak 77 eta hilgarriak 13. Industriaren sektorean izan dira lan-istripu gehienak, guztizkoaren % 33. Aurreko urtearekin alderatuta, **% 16,7 igo da lan-istripuen kopurua**. Baja eragin duten istripu arinak % 16,75 gehitu dira, istripu larriak 7 gehiago izan dira eta hilgarriak 2 gehiago, 11tik 13ra pasaz.

Lan istripuak	2021	2020
Arinak	10.892	9.329
Larriak	77	70
Hilgarriak	13	11
OSOTARA	10.982	9.410

Intzidentzia-indizea (100.000 langileko lan-istripuen kopurua) 3.488koa izan da 2021ean, **aurreko urtean baino % 13,5 handiagoa**.

Laneko gaixotasunei dagokienez, gaixotasun profesionalekin loturiko 1.276 parte jakinarazi dira urtarriletik abendura bitarte, **2020an baino % 5,45 gehiago**. Bajarik gabeko gaixotasun profesionalak guztizkoaren % 55,7 dira, eta aurreko urtean baino % 5 gehiago izan dira. 2020an, mutuek laneko gaixotasunengatik 100 kasuko 44 baja eman zituzten (iturria: CEPROSS).

COVID-19AREKIN LOTUTAKO LAN ISTRIPUAK: (iturria: MITES)

2020an EAEn COVID-19arekin lotutako 177 lan-istripu zenbatu dira. **2021ean 477 kasu izan dira, % 169,5 gehiago**. Haietako bat ere ez da hilgarria izan.

2020an Covid-19ak eragindako 21 lan-istripu zenbatu ziren, eta **2021ean 68 kasu, % 224 gehiago**. Bakar batek ere ez du heriotza eragin. Datu hauek argi eta garbi islatzen dute estatistika ofizialetan dagoen gutxiagotzea, baita Covid-19aren eta laneko esposizioaren kasuan ere.

ONDORIOAK

Oraindik Covid-19 egoeran murgilduta egon arren eta horrek kutsatzeak saihesteko neurri murriztaileak areagtu eta osasun-krisiak sortutako krisi ekonomikoa areagotzen duen arren, datu ofizialek erakusten dutenez, **2021eko lan-ezbeharren datuetan gorakada nabarmena izan da aurreko urtearekin alderatuta**. Aurretik aipatu bezala, gora egin dute istripu berriek (baja sortu dutenak eta bajarik gabekoak), berriz gaixotzeek, istripu arinek, larriek eta hilgarriek, in itinere istripuek, intzidentzia-tasek eta lanbide-gaixotasunengatiko parteen jakinarazpen-kopuruek HEH osoan.

Deigarria da **in itinere istripu hilgarrien gorakada**, 8 izan baitira, guztizkoaren % 61,5. 2020an ez zen in itinere istripu hilgarririk kontabilizatu. Lanaldiko istripu hilgarriak 11tik 5era jaitsi dira.

Lan-istripuen intzidentzia-tasek (lan-istripuen kopurua 1.000/100.000 langileko) **gora egin dute, bai gizonetan, bai emakumeetan eta sektore guztietan**.

Lan-gaixotasunek ere gora egin dute 2020arekin alderatuta, gizonetan eta emakumeetan.

Gogor salatu behar dugu **Nafarroako Prebentzioko Lurralde Ordezkararen figura berreskuratu izana CEN, UGT eta CCOO finantzatzeko baita**, ez lan-istripuei aurre egiteko. Aurreko gobernuak Manu Ayerdiren (Geroa Bai) eskutik Lurralde Ordezkararen figura berreskuratu zuen. Figura hori lehen ere bazegoen, Sanzen eta Barcinaren garaian; guztiz alferrikakoa zela ikusi zen, eta aprobetxatu egiten zela erakunde horiek afiliazioa egin eta hauteskunde sindikalak antola zitzaten beste sindikatu batzuek sartzeko arazoak zituzten enpresetan.

2021-2024 Enplegu Planak figura hori jasotzen du, eta milioi bat euro baino gehiago bideratuko ditu **Nafarroako Gobernuak 2022an onartutako** Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontura. Horrek esan nahi du sindikatu bakoitzak 3.300 euro inguru jasoko dituela enpresa bat bisitatzen duten bakoitzean. Baina, konparazio batera, Erakunde Publikoari 500 euro inguru kostatzen zaio bisita bakoitza, eta 24 teknikari kontrata ditzake kopuru horrekin. Kopuru hori oso handia da, **administrazioak berak beste departamentu batzuei ematen dien diru-kopurua ikusita**: 135.000 € Lan Osasuneko Ekintza Planerako eta 120.000 € amiantoa kentzeko planerako.

Gure ustez, Administrazioak baliabide gehiago bideratu behar ditu prebentzio-baliabideen zuzeneko kontrataziora, bai pertsonalak bai materialak. Lotsagarria da hain gai garrantzitsuan – 2021ean gutxienez 20 langile hil dira lanean edo lanaren ondorioz- Nafarroako Gobernuaren proposamena figura hori berreskuratu eta suspertzea izatea, **ezbehar-tasa handiei aurre egiteko eraginkortasunik ez duela erakutsi baitu**.

Salatu nahi dugu, beste behin ere, **mutuek eta GSINek laneko patologia aintzat hartzen dituztela oso kasu gutxitan**. Hori, beste behin ere, onuragarria da patronalarentzat, eta oso zabaldua dagoen praktika da. Ondorioz, langileek osasun-egoera txarrean joan behar dute lanera, edo osasun-sistema publikora jo, eta azken horri bideratu gastua.

Horrek berarekin dakar, alde batetik, **laneko ezbehar-tasari buruzko benetako estatistika ofizialen gabezia**; izan ere, istripu asko ez dira lan-istripuztat hartzen edo arintzat jotzen dira, eta, batez ere, lan-jatorriko gaixotasun asko osasun-zerbitzu publikora bideratzen dituzte mutuek, jatorria lanpostuarekin zerikusirik ez duela argudiatuz. Eta, bestetik, gaixo dauden langileak behartzen ditu aitorten falta hori judizializatu behar izatera, prozesu judizial luze eta zaileri aurre eginez. Gainera, egiaztatzen ari gara GSINk gero eta gehiago berresten dituela mutualitateen jardunbide txarrak, eta erabateko babesgabetasunen egoeran uzten dituela langileak.

Gauza bera nabarmendu dezakegu Covid-19arekin lotutako lan-istripuei buruzko datuei dagokienez. **Ez dute inondik inora islatzen bizi izandakoa, bereziki osasun-sektorean eta sektore sozio-sanitarioan**; izan ere, covidak eragindako bajak lan-istripu gisa kalifikatzeko orduan prebentzio-zerbitzuak eta mutualitateak trabak jarri dizkiete langile askori.

Azken 6 urteetan Nafarroan izandako lan-istripu hilgarrien eta lanbide-gaixotasunen laburpen estatistikoa. Iturria: NOPLOI, MITES.

	<u>2016</u>	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>2019</u>	<u>2020</u>	<u>2021</u>
<u>Estatistika ofizialak</u>	<u>NAV</u>	<u>NAV</u>	<u>NAV</u>	<u>NAV</u>	<u>NAV</u>	<u>NAV</u>
<u>Lan istripu hilgarriak</u>	9	11	10	13	11	13
<u>Laneko gaixotasunak</u>	1580	1420	1557	1375	1217	1276

DATU SINDIKALAK

2021ean, ELA-LAB-CGT-ESK-STEILAS-EHNE-HIRUK **20 lan-istripu hilgarri zenbatu dituzte guztira Nafarroan**, hau da, % 81eko igoera 2020an erregistratutako datuekin alderatuta. Igoera oso handia izan da, hildakoen kopurua ia bikoiztu egin baita, 9 langile gehiago.

Laneko istripu hilgarriak	2021	2020	2019	2018	2017	2016
NAFARROA	20	11	15	21	14	13

Istripu hilgarrien motari buruzko xehetasun gehiago emanez,

- % 75 trafikoko lan-istripuak dira, % 50 in itinere eta % 25 harrapaketak.
- % 10 istripu hilgarri ez-traumatikoak dira.
- % 25 harrapatzeagatiko istripuak dira.
- Istripua izan zuten pertsonen % 25 azpikontratatuak ziren.
- Hildakoen % 30 garraiolariak izan dira.
- Halaber, gure estatistiketan erregistratuko ez dugun arren, David Beriain kazetari nafarra hil zuten Burkina Fason lanean ari zela, Roberto Frailerekin batera.

Ekizten diren sektoreari dagokionez,

- Hildakoen % 55 industria-sektorean hil ziren.
- % 30 salgaien garraioaren sektorekoak dira.
- Gainerako % 15a nekazaritzan, merkataritzan eta komunikabideetan gertatzen da.

Lan-istripu hilgarri buruzko datu sindikalen eta iturri ofizialen datuen konparazioa

	2021		2020		2019	
	Iturri Ofizialak	Iturri Sindikalak	Iturri Ofizialak	Iturri Sindikalak	Iturri Ofizialak	Iturri Sindikalak
<u>NAFARROA</u>	13	20	11	11	13	15

DATUEN IRAKURKETA

1.- Murrizketek eta Covidek eragindako egoerak lan-jardueran etengabe behera egin duten arren, lan- ezbeharren datuek gora egin dute eta aurreko urteko joera berari jarraitzen diote, eta guztiz onartezinak dira. **Iturri ofizialen arabera, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kopuruak gora egin du.** Gure estatistikek aurreko urtean baino askoz egoera txarragoa islatzen dute, 2020. urteko 13rekin alderatuta 20 pertsona hil baitira. Sektore guztietan jarduera eten eta murrizketak eragin dituen osasun- eta ekonomia-krisia kontuan hartuta, datuak guztiz onartezinak dira.

Nafarroako lantokietako laneko segurtasunaren eta osasunaren egoera urtez urte hobetzen ez dela salatu nahi dugu. Enpleguaren kalitate txarra eta prekaritate-indize handiak dira arrazoi nagusiak. Azpikontratazioa, lan-erritmo handiak, baliabide teknikoetan eta giza baliabideetan inbertsiorik ez izatea edo informazio eta prestakuntza falta dira, besteak beste, laneko istripuen eta gaixotasunen atzean ezkutatzen diren arrazoi nagusiak.

2.- Lan-istripu eta lanbide-gaixotasun askok estatistika ofizialetan erregistratu gabe jarraitzen dute. Istripu hilgarrien kasuan, % 53,8ko azpierreregistroa badago datu sindikalen eta erregistro ofizialen artean 2021ean, eta horrek esan nahi du 7 lan-istripu hilgarri ez direla halakotzat hartu, pentsatzekoa da istripu larrien eta arinen kasuan ere antzeko azpi-erregistroa egongo dela, eta, beraz, **lan-istripu asko ez dira estatistika ofizialetan agertzen.** Datu oso altuak izan arren, errealitate oso urrun daude; izan ere, lehen esan dugun bezala, asko ez dira erregistratzen (istripu arinak, in-itinere, etxeko langileen istripuak...), eta beste batzuk enpresek berek zuzenean edo mutualitateen laguntzarekin, tribializatu egiten dituzte, arin gisa kalifikatuz, edo ezkutatu egiten dira, eta gizarte-segurantzara bideratzen dira lanekoak ez diren istripu edo gaixotasun gisa, erregistratuak izan ez daitezen, agintariek ez dezaten eta gerta daitezkeen erantzukizun ekonomikoak iker ditzaten.

Laneko istripuak lesioaren larritasunaren arabera aztertzen dira, nahiz eta lesioari buruzko definizio legal edo teknikorik ez egon. Enpresen eta ugazaben mutualitateen esku geratzen da kalifikazioa, eta, horrela, **istripuen % 99 baino gehiago arintzat jotzen dira,** eta erdiak baino gehiago baxerik gabeko istripuztat.

Laneko gaixotasunen kasuan, azpideklarazioa are ugariagoa eta odoltsuagoa da. Ezkutatzek zerikusi handia du baja horien ondorio diren planteamendu ekonomikoekin; izan ere, gaixotasun bat profesionaltzat hartzen den ala ez, tratamenduaren gastua eta horren ondoriozko prestazioak mutualitate batek edo osasun-sistema publikoak hartzen ditu bere gain. Ugazaben mutualitateek laneko patologien jatorria ukatzen badute eta osasun-sistema publikora bideratzen badituzte gaixotasun arrunt gisa, lanpostuan sortutako kalte guztiak guztion artean ordaintzen ditugu, eta errentagarritasun ekonomikoak gailentzen da langileen osasunaren gainetik.

Bizitzen ari garen osasun- eta ekonomia-krisiak eragin zuzena du gure osasunean, ziurgabetasuna, ezegonkortasuna, langabezia, kaleratzeak, enpresen itxierak, aldi baterako lan-erregulazioak, enplegu-erregulazioko espedienteak, lan-baldintzen okertzea, soldaten murrizketa, lan-kargen bat-bateko aldaketak, etab. **Horrek guztiak langileen osasuna kaltetzen du, batez ere osasun mentalari dagokionez,** estresa areagotuz, eta, ondorioz, osasun-arazoak eta patologia larriak eragin ditzake, hala nola, osasun fisikoa. Ikusten dugunez, bizi dugun ziurgabetasunak are gehiago larriagotu ditu langileen baldintza psikosozialak.

3.- Kaltegarria da herri-administrazioek garraioaren sektoreari ematen dioten tratua, urteetan zehar lan-baldintza eta segurtasun-baldintza hobekien eskatzen baituzte, hala nola, atsedena ahalbidetzen duten lanaldi laburragoak, lan-karga gutxiago, errepideetako baldintzak hobetzea gaur egun oraindik puntu beltz askorekin, banaketetan lan-erritmo txikiagoak izatea. Gainera, kasu askotan, **garraiolarien istripuak trafiko-istripu gisa kalifikatzen dira**, lan-istripuak izan beharrean.

4.- Basogintzaren sektoreko lan-ezbeharren datuak ikusita, eta urtero hildakoak daudela ikusita, administrazioei eskatzen diegu **sektore horretarako plan estrategiko bat egin dezatela**, lan egiteko baldintzak gogorrak direlako, arrisku oso handiak daudelako eta prebentzio-neurriak ez direlako nahikoak.

5.- Nafarroako Gobernuak ez ditu seriooki hartzen langileen segurtasuna eta osasuna. Arlo horretako politiken norabidea ez da aldatu, eta dagoeneko frogatu da ez direla eraginkorrak eta ez direla nahikoak laneko ezbeharren gaitz soziala ezabatzeko. **Lan-osasuneko gastu publikoa txikiegia da**, eta, beraz, Nafarroako aurrekontu osoaren % 0,01 baino ez da partida horretara bideratzen.

6.- Lan Ikuskaritzaren eta NOPLOIren jarduketan oso epe luzeak daudela salatzen dugu, prebentzio-arloko **kontrolerako eta jarraipenerako langilerik eta baliabiderik ez dagoela adierazten baitu**. Ezinezkoa da prebentzioan enpresak betearaztea bitartekorik ez dagoelako iristen ez den edo berandu iristen den ikuskapen batekin. Langile gehiago behar dira.

7.- Laneko minbizien, amiantoarekin edo silikosiarekin lotutako kasuen kopuruak gora egiten jarraitzen du. **2021ean, gutxienez 17 pertsona hil dira amiantoaren ondorioz Hego Euskal Herrian**. 1993tik gutxienez 2.398 langile eta/edo haien emazteak hil dira, lanean amiantoa arnasteagatik edo etxean laneko arropa garbitzeagatik. Tamalez, ez dira eta ez dira bakarrak izango.

8.- Bestalde, **ez dakigu zenbat langile kutsatu eta hil diren koronabirusaren ondorioz lantokietan prebentzio eta babes faltagatik**. Pandemiaren egiaztatu dugu prebentzio-zerbitzuak desagertu egin direla enpresetatik, prebentzio-beharrak premiazkoak ziren une batean, eta gomendio higienikoak eta kontingentzia-plan generikoak aukeratu dituzte.

Langileria aspaldidanik jasaten ari den lan- eta gizarte-eskubideen murrizketa larria, krisi-testuinguru honetan larriagotzen ari dena, gure osasunarekin ordaintzeko prest ez gauden **langileen segurtasunaren eta osasunaren aurkako eraso da**. Bada garaia laneko osasun-politikak errotik aldatzeko eta osasuna eta bizitza gainerako guztiaren aurretik jartzeko.

Egoeraren larritasuna ikusita, Nafarroako Gobernuari eskatzen dizkiogun neurriak berresten ditugu:

- Enpresen gaineko kontrol handiagoa. Lantokietan prebentzio-neurrien jarraipen egokia egiteko, ezinbestekoa da NOPLOIko eta Lan Ikuskaritzako langileak gehitzea, Europako batez bestekoarekin parekatuz. Praktikan, horrek esan nahi du teknikarien eta teknikarien kopurua 50 gehiago izatea Nafarroan. Era berean, Nafarroako Gobernuak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren arloko eskumenak berreskuratu behar ditu, eta **eskatzen dugu Prebentzioko Lurralde Ordezkairenen figura finantzatzeko milioi askoko partida Lan Ikuskaritzako eta ISPLNko langileak indartzera bideratzea**.
- **Mutualitateak eta prebentzio-zerbitzuak publiko egitea**. Ez dira eraginkorrak osasunaren eta prebentzioaren ikuspegitik.
- **Kontrol eta jarraipen ekintza gehiago egitea**, altueratik erorketak, harrapaketak edo agente kantzerigeno eta mutagenoekin lan egiteko arriskua duten jarduerak egiten dituzten enpresetan araudia betetzen dela egiaztatzeko.
- Prebentzio-arloan **zehatutako enpresak kontratatuzko debekua**.
- Nafarroako enpresa guztietan **arrisku psikosozialaren ebaluazioak egiteko eskatzea**, pandemiak eta sortu den ziurgabetasun-egoerak langileen baldintza psikosozialak are gehiago larriagotu dituela kontuan hartuta. Horretarako, bi urteko epean, enpresa guztiek arrisku psikosozialen ebaluazio bat izan beharko dute gutxienez, eta gabeziak daudenean neurriak ezarri beharko dituzte. Gainera, NOPLOIko langileek egingo dute betetze-mailaren jarraipena.

- Enpresei mugikortasun iraunkorreko plan bat eskatzea eta errepideen egoera hobetzea, eta **istripu asko izaten dituzten puntu beltzak ezabatzea**, azken urteetan modu kezagarrian areagotzen ari diren in-itinere istripuak desagerrarazteko edo, hala badagokio, gutxitzeko.

ELA-LAB-CGT-ESK-STEILAS-EHNE-HIRU